

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN ATZERRIKO HIZKUNTZAK IKASTEKO PROGRAMAK ARAUTUKO DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA PRESTATU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAN PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua honela dio: “Administrazio Publikoak, lege-proiektu edo lege-aurreproiektu bat edo erregelamendu bat egiteko parte-hartze publikoa errazte aldera, lege edo erregelamendu hori egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo du eremu horren bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu eta erakunde garrantzitsuenen iritzia biltzeko:

- a. Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b. Bere onespena jasotzeko beharra eta aukera.
- c. Arauaren helburuak.
- d. Aukerako soluzio erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Agindu hori betez, Nafarroako Foru Komunitatean atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak arautuko dituzten oinarrizko alderdiak arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektu bat egiten hasteko alde aurreko kontsulta web orri honetan argitaratu da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/consulta-publica-previa-sobre-proyecto-decreto-foral-que-regule-aspectos>

Aurretiazko kontsultak 2019ko abenduaren 20tik 2020ko urtarrilaren 20ra arte izan du herritarren partaidetza. Alegatzeko erabili den mekanismoa posta elektronikoa izan da, helbide honetara bidalia: sle@navarra.es

Jendaurreko epea bukatuta, aditzera eman behar da ez dela alegaziorik aurkeztu proposaturiko foru dekretuari.

Ondorioz, Eleaniztasun eta Arte Ikasketen Zerbitzuak, espediente honen unitate tramitatu den aldetik, Gobernu Irekiari eskatuko dio “Nafarroako Foru Komunitatean atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak arautuko dituzten oinarrizko alderdiak arautzen dituen Foru Dekretuaren

proiektua” argitara dezala Gardentasunaren Atarian, herritarrek ekarpenak edo iradokizunak egin ahal izan ditzaten.

Iruñean, 2022ko martxoaren 24an

Eleaniztasun
eta Arte Ikasketen Zerbitzuko zuzendaria

[Sinadura originalean](#)

Ignacio Miguel Catalán Librada

Ataleko burua
Atzerriko hizkuntzak

[Sinadura originalean](#)

Iñaki Salegui Ciordia